

PETRONOR ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ALDATZEKO ERANSKINA, HONAKO PROIEKTU HAUEK FINANTZATU ETA EGIKARITZEKO: ITSASORA ISURTZEKO HODIA, BBUPren MUSKIZKO HUA – PETRONOR HUB POLIDUKTOA BILBOKO PORTUA.

ADENDA DE MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE PETRONOR Y EL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA PARA LA EJECUCIÓN Y FINANCIACIÓN DE LOS PROYECTOS: CONDUCCIÓN DE VERTIDO A MAR DE LA EDAR DE MUSKIZ DEL CABB – POLIDUCTO PETRONOR HUB PUERTO DE BILBAO.

Bilbo, 2022ko uztailak 27

En Bilbao, a 27 de julio de 2022

BILDU DIRA

REUNIDOS

JOSE GREGORIO LUQUE GONZALEZ jauna (NAN: 30.484.695-N), Petróleos del Norte SA (PETRONOR) enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz, kontseilari ordezkaria den aldetik, Manuel López Pardiñas Bilboko notario jaunaren aurrean, 2019ko martxoaren 4an, haren alde emandako boterearen arabera (protokolo-zenbakia: 581).

D. JOSE GREGORIO LUQUE GONZALEZ, con DNI 30.484.695-N en nombre y representación de Petróleos del Norte, SA (PETRONOR), en su condición de Consejero Delegado, según poder otorgado a su favor ante el Notario de Bilbao D. Manuel López Pardiñas, con fecha 4 de marzo de 2019, al número 581 de su Protocolo

KEPA ODRIOZOLA AZULA jauna, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea, Zuzendaritza Batzordearen 2022ko uztailaren 27an erabakiz egintza hau burutzeko eskumena daukana.

D. KEPA ODRIOZOLA AZULA, Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, facultado para este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha 26 de julio de 2022.

ESKU HARTZEN DUTE

INTERVIENEN

Bi alderdiek gaitasun legal nahikoa aitortu diote elkarri Eranskin honen terminoen arabera elkar derrigortzeko, eta horretarako


Ambas partes se reconocen capacidad legal suficiente para obligarse en los términos de la presente Adenda, y al efecto

AZALDU DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.-

PRIMERO.-



2021eko maiatzaren 6an, esku-hartzaileek lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten honako proiektu hauek modu koordinatuan egikaritzeko eta finantzatzeko: Itsasora isurtzeko hodia, BBUPren Muskizko HUA – Petronor HUB poliduktoa.

Bi aldeek Petronorren poliduktoaren zortasun-eremuan (findegiaren eta Bilboko Portuaren artean) hodi berriak garatzeko interesa zutelako sinatu zen hitzarmen hori. Izan ere, eremu hori oso mugatua da, eta, beraz, beharrezkoa da bi jarduketak proiektu komun batean definituta geratzea eta aldi berean instalatzea, hori guztia obra-kontratu beraren baitan.

LANKIDETZA-HITZARMEN horretan, honako hauek arautu ziren: egin beharreko lanen xedea eta irismena, garapen-faseak, alde bakoitzak bere gain hartu beharreko erantzukizunak eta horri aurre egiteko behar diren zenbatekoen aurrekontu-estimazioa, une horretan eskuragarri zeuden datuekin egin zena.

Petronor findegiaren eta Bilboko Portuaren arteko poliduktoa handitzeko hitzarmenean jasotako jarduketak lau tartetan banatzen dira:

- **A tartea:** Lau hodi hartzen ditu bame, Petronorrenak, findegiaren barruan (800m), BBUPren hodiarekin elkartzen den puntura arte.
- **B tartea:** Partzuergoaren hodia, HUAtik elkartze-puntura arte doana (300m).
- **C tartea:** Tarte komuna, 3.000 metroko bost hodik osatutakoa: BBUPren bat eta PETRONORen lau.

Que con fecha 6 de mayo de 2021 las partes intervinientes firmaron un convenio de colaboración cuyo objetivo es la ejecución coordinada y la financiación de los proyectos: Conducción de vertido al mar de la EDAR de Muskiz, del CABB-Poliducto Petronor HUB.

Dicho convenio está motivado por el interés de las partes en el desarrollo de nuevas conducciones en la zona de servidumbre de poliducto de Petronor, entre la refinería y el Puerto de Bilbao, donde el espacio es muy limitado, lo que hace necesario que las dos actuaciones queden definidas en un proyecto común, y su instalación se lleve a cabo al mismo tiempo, dentro de un mismo contrato de obras.

En dicho CONVENIO DE COLABORACIÓN quedó regulado el objeto y alcance de los trabajos a acometer, las fases de desarrollo, las responsabilidades a asumir por cada uno y una estimación presupuestaria de los importes necesarios para hacer frente al mismo, que se realizó con los datos disponibles en ese momento.

Las actuaciones incluidas en el objeto del convenio para materializar la ampliación del Poliducto entre la refinería de Petronor y el Puerto de Bilbao se dividen en 4 tramos:

- **Tramo A:** 4 Conducciones, propias de Petronor, dentro de la refinería (800m.) hasta el punto de confluencia con la conducción del CABB.
- **Tramo B:** Conducción propia del Consorcio desde la EDAR hasta el punto de confluencia (300m.).
- **Tramo C:** Tramo común, formado por 5 tuberías de unos 3.000 m: 1 del CABB y 4 para PETRONOR.

- **D tartea:** Petronorren lau hodi propio, portuaren barruan daudenak eta 2.200 metroko luzera dutenak.

Deialdia garatzeko honako fase hauek ezarri ziren:

- **IA fasea:** Aurreiazko baterako kontsultak (A+B+C+D tarteak) eta Petronorren hodian trazadura-proiektua idaztea (A+C+D tarteak).
- **IB fasea:** Eraikuntza-proiektua idaztea (A+C+D tarteak).
- **II. fasea:** Eraikuntza-proiektuan definitutako hodi guztiak eraikitzea (A+C+D tarteak).

BIGARRENA. -

Aipatutako hitzarmenaren aurreikuspenak betez, 2021eko abenduan, IA faseari dagozkion lanak amaitu ziren. Horien bidez, hodian trazadura definitu da lursailarekin bat etorri dadin, bideragarritasuna bermatzeko aurreiazko kontsultak egin dira eta trazadurarako oinarrizko proiektu egokiak idatzi.

HIRUGARRENA. -

Hodien trazadura eta garatu beharko diren eraikuntza-soluzioak zehaztu ondoren, hurbilketa zehatzago bat egin ahal izan da eraikuntza-proiektuaren eta egikaritze-lanaren IB eta II faseetako lanen irismenari eta horiei lotutako aurrekontuei dagokienez, hurrenez hurren.

- **Tramo D:** 4 Conducciones propias de Petronor que se desarrollan dentro del puerto, de 2.200m.

Para el desarrollo del convenio se establecieron las siguientes fases:

- **Fase IA:** Consultas previas comunes (Tramos A+B+C+D) y redacción del Proyecto de trazado de conducciones Petronor (Tramos A+C+D).
- **Fase IB:** Para la redacción del proyecto constructivo (Tramos A+C+D).
- **Fase II:** De construcción del conjunto de conducciones definidas en el proyecto constructivo (Tramos A+C+D).

SEGUNDO. -

Que, cumpliendo las previsiones del citado convenio, en diciembre de 2021 se concluyeron los trabajos correspondientes a la denominada Fase IA, que han comprendido la definición del trazado de las conducciones para su encaje en el terreno, las consultas previas para garantizar la viabilidad, así como la redacción de los correspondientes proyectos básicos de trazado.

TERCERO. -

Que, una vez definido el trazado de las conducciones y las soluciones constructivas que será necesario desarrollar, se ha podido realizar una aproximación más precisa del alcance de los trabajos de las siguientes Fases IB y II del proyecto constructivo y ejecución respectivamente, y de sus presupuestos asociados.

Era berean, IA fasea amaituta, fase horretan egindako lanen ondoriozko azken zenbatekoa eta aldean arteko likidazioa zehaztu ahal izan dira.

LAUGARRENA. -

2021eko maiatzaren 6ko hitzarmenaren bederatzigarren klausulan ezarritakoari jarraituz, Jarraipen Batzordeko ordezkariak 2022ko maiatzaren 24an bildu ziren, lanen aurrerapena aztertzeko, egindako jarduketan aurrekontua berrikusteko eta hurrengo faseetarako aurreikusitako epeen eta aurrekontuen aurreikuspena eguneratzeko, eskura dauden datu berrietan oinarrituta.

BOSGARRENA. -

Eskura dauden aurrekontu eta epe berriak ikusita, bi alderdiek bidezkozat jo dute 2021eko maiatzaren 6ko hitzarmena aldatzea, aurreikuspen berrien arabera eguneratzeko eta hitzarmenaren egikaritze eta martxa onaren alde egiteko.

Zehazki, alderdiek hitzarmenaren atal hauek aldatzeko interesa agertu dute: bigarren klausula ("*Proiektuaren faseak*"), seigarren klausula ("*Obrak eraiki eta zuzentzeko finantzaketa*") eta zazpigarren klausula ("*Ekarpenak ordaintzea*"), hori guztia egikaritzeke dauden faseetan kontuan hartu beharreko kostuak eta epeak eguneratu eta doitzeko asmoz.

SEIGARRENA. -

Aldaketa hau egiteko, sinatutako hitzarmenean jasotako jarduketan irismena eta xedea errespetatu beharko dira.

Asimismo, concluida la Fase IA se ha podido concretar el importe final resultante de los trabajos que en ella se han llevado a cabo y su liquidación entre las partes.

CUARTO. -

Que, siguiendo lo establecido en la cláusula novena del convenio de 6 de mayo de 2021, los representantes de la Comisión de Seguimiento se reunieron con fecha 24 de mayo de 2022 al objeto de analizar el avance de los trabajos, repasar el presupuesto de las actuaciones ya realizadas y actualizar la previsión de plazos y presupuestos estimados para las siguientes fases, en base a los nuevos datos disponibles.

QUINTO. -

Que, a la vista de los nuevos plazos y presupuestos disponibles, ambas partes consideran procedente la modificación del convenio de 6 de mayo de 2021 para actualizarlo a las nuevas estimaciones en orden a la buena marcha y ejecución del convenio.

En particular, las partes manifiestan su interés en modificar la cláusula segunda "*Fases del Proyecto*", la cláusula sexta "*Financiación de la Dirección y Construcción de las Obras*", así como la cláusula séptima "*Abono de las aportaciones*", todo ello para la actualización y reajuste de los costes y de los plazos a considerar en las fases pendientes de ejecutar.

SEXTO. -

Esta modificación se efectuará respetando en todos sus términos el



alcance y el objeto de las actuaciones contempladas en el convenio suscrito.

Azaldutako guztia dela bide, alderdiek Eranskin hau sinatzea adostu dute, honako klausula hauek arautuko dutena:

Por todo lo expuesto, las partes acuerdan suscribir la presente Adenda, que se registrá por las siguientes

KLAUSULAK

AURRETIAZKOA.- DEFINIZIOAK

A tartea: Lau hodi hartzen ditu barne, Petronorrenak, findegiaren barruan, BBUPren hodiarekin elkartzen den puntura arte, gutxi gorabehera 800 metroko luzerakoak. Hodien ezaugarriak taulan zehaztu dira. Hodi horiek hitzarmen honen babespean egingo dira.

CLÁUSULAS

PREVIA.- DEFINICIONES

Tramo A: Comprende 4 Conducciones, propias de Petronor, dentro de la refinería, hasta el punto de confluencia con la conducción del CABB, de longitud aproximada 800m. Se detalla en la tabla las características de las conducciones. Estas conducciones se ejecutarán al amparo del presente convenio.

ZERBITZUA SERVICIO	LINEAREN TAMAINA (In) TAMAÑO LÍNEA (In)	MATERIALA MATERIAL	RATING	Diseinu temp. (°C) T° diseño (°C)	Diseinu pisua (kg/cm2g) P diseño (kg/cm2g)
CO2	4"(101mm.)	SS	300	100	39,6
H2	3"(76,2mm.)	CS	300	80	28
SYNGAS	8"(203mm.)	CS	150	80	9,3
RESIDUAL	20"(508mm.)	PET			

B tartea: Partzuergoaren hodi bat da, HUAtik poliduktoarekin elkartzen den puntura arte egingo dena. 300 metroko luzera du eta Ø1200 mm-ko zulo baten bidez egingo da. Hodi hori ez da hitzarmen honen babespean egingo.

Tramo B: Se trata de una Conducción propia del Consorcio que se desarrollará desde la EDAR hasta el punto de confluencia del poliducto. Tiene una longitud de 300m. y se ejecutará mediante una Hince de Ø1200 mm. Esta conducción no se ejecutará dentro del convenio.

C tartea: Poliduktoaren tarte komunari dagokio. Bost hodi hartzen ditu barne: Luzera, gutxi gorabehera 3.000 m-koa da.

Tramo C: Corresponde al tramo común de poliducto. Comprende 5



- BBUP: HDPEko tutu bat, Ø500 mm.
- Petronor: Lehenago aipatutako ezaugarriak izango dituzten lau hodi.

D tartea: Petronorren lau hodi hartzen ditu barne; hodi horien trazadura Bilboko Portuaren barruan dago, lehenago aipatutako ezaugarriak dituzte eta gutxi gorabeherako luzera 2.200 m-koa da. Hodi horiek hitzarmen honen babespean egingo dira.

1. eranskina. Planoa.

- **I. fasea-Honako hau hartzen du barne:**

- **I.A fasea.**

- (i) Baimenak eskatu eta aurretiazko kontsultak izapidetzeko agiri-sorta prestatzeko egin beharreko ingeniari-tz lanak.

- (ii) Trazadura-proiektua idaztea.

- **I.B fasea**

Eraikuntza-proiektua idaztea.

- **II. fasea – Honako hau hartzen du barne:**

Eraikuntza: Eraikuntza-proiektuan definitutako hodi multzoa eraikitzean datza, eskaintzak eskatu eta esleitzeko lanak barne.

tuberías: con una longitud aproximada de 3.000 m.

- CABB: 1 tubería de PEAD Ø500 mm.
- Petronor: 4 conducciones con las características indicadas arriba.

Tramo D: Comprende 4 Conducciones propias de Petronor, cuyo trazado se desarrolla dentro del Puerto de Bilbao, de las características arriba indicadas, y con una longitud aproximada de 2.200m. Estas conducciones se ejecutarán al amparo de este convenio.

Anexo nº1 Plano.

- **Fase I-Comprende:**

- **Fase I.A**

- (iii) Tareas de ingeniería necesarias para la elaboración del paquete documental destinado a la solicitud de permisos y tramitación de consultas previas


- (iv) Redacción del Proyecto de trazado.

- **Fase I.B**

Redacción del proyecto constructivo.

- **Fase II – Comprende:**

Construcción: entendiéndose por tal, la construcción del conjunto de conducciones definidas en el proyecto constructivo, incluidas las tareas de petición de oferta y adjudicación.



LEHENA. - Aldaketa-eranskinaren xedea.

Eranskin honen xedea da alderdiek 2021eko maiatzaren 6an sinatutako hitzarmena aldatzea, inbertsio-zenbateko berrietara egokitzeko eta, horien arabera, urteko kontuak doitzeko.

BIGARRENA. – Petronorren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren artean 2021eko maiatzaren 6an sinatutako hitzarmenaren bigarren klausula (“Proiektuaren faseak”) aldatzea.

2021eko maiatzaren 6an sinatutako bigarren klausula aldatzea, honela idatzita geratu dadin:

“BIGARRENA. -PROIEKTUAREN FASEAK.

I.A fasea:

(i) Irismena

- Kontsulta dokumentua idaztea eta izapidetzea kasuan kasuko erakundeen aurrean, hodian trazadura osoak bane (A + B + C + D tartek).
- Petronorren hodi osoen trazadura-proiektua idaztea (A + C + D tartek).

(ii) Zehaztasunak

- Alderdi bakoitzari dagokio bere trazadura-proiektuaren idazketa gainbegiratzea.

PRIMERA. - Objeto de la adenda de modificación.

Constituye el objeto de esta adenda la modificación del convenio suscrito entre las partes en fecha 6 de mayo de 2021 con el fin de adaptarlo a los nuevos importes de inversión, así como reajustar las anualidades en base a los mismos.

SEGUNDA. – Modificación de la cláusula segunda “Fases del Proyecto”, del convenio suscrito entre Petronor y el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia con fecha 6 de mayo de 2021.

Se modifica la cláusula segunda del Convenio suscrito en fecha 6 de mayo de 2021, que queda con la siguiente redacción:

“SEGUNDA. - FASES DEL PROYECTO.


Fase I-A

(i) Alcance

- Redacción del documento de consultas y su tramitación ante los distintos organismos, que incluirá los trazados completos de las conducciones (Tramos A + B + C + D).
- Redacción del proyecto de trazado de las conducciones completas de Petronor (Tramos A + C + D).

(ii) Especificidades

- Corresponde a cada parte la supervisión de la redacción de su proyecto de trazado.



- Alderdi bakoitzari dagokio beharrezkotzat jotako jarduketa oro egitea kasuan kasuko ingurumen baimena, organo baimenak, lizentziak eta baimenak lortzeko, baita beharrezko obrak egiteko behar diren lurrak kudeatzeko beharrezko jarduketa oro egitea ere.
- Alderdi bakoitzak banakako erantzukizuna izango du aurreko paragrafoetan aipatutako jarduketetan; nolana ere, elkarren artean lankidetzan jardungo dute.
- Partzuergoaren hodi osoaren trazadura-proiektua kontratatzea (B+C tarteak) modu independente eta bereizian egingo du BBUPk; Petronorrek dokumentazio komuna eman beharko dio BBUPi, hitzamenaren barruan prestatutakoa, helburu horretarako erabilgarria bada.
- Corresponde a cada parte la realización de cuantas actuaciones fuesen necesarias a los efectos de obtener la correspondiente autorización ambiental, autorizaciones de los órganos sustantivos, licencias, permisos y cuantas actuaciones fuesen necesarias para la gestión de los suelos necesarios para la ejecución de las obras.
- Cada parte resulta individualmente responsable de las actuaciones indicadas en los párrafos precedentes, todo ello sin perjuicio de la mutua colaboración entre ambas.
- La contratación del proyecto de trazado de la conducción completa del consorcio Tramos B+C será realizada de manera independiente y separada por parte del CABB, debiendo Petronor facilitar al CABB la documentación común, elaborada dentro del convenio, que fuera de utilidad para tal fin.

(iii) Kostuen banaketa

I-A Faseari eta I- B Faseari dagozkion kostuen banaketa ehuneko desberdinen arabera ezarri da. Fase hauetako bakoitzean alderdi bakoitzak beharizan desberdinak dauzka; horrenbestez, fase bakoitzean alderdi bakoitzari kostuen esleipen desberdina dagokio.

Hortaz, 2021eko abenduan amaitutako I-A faseari dagozkion kostuen banaketa irizpide hauen arabera banatu da:

(iii) Reparto de los costes

El reparto de costes correspondientes a las Fase I-A y Fase I- B es establecido en base a porcentuales diferentes. Siendo las necesidades de las partes distintas en cada una de estas fases, es por lo que procede, una asignación de costes específica en cada una de ellas para cada una de las partes.

Así, el reparto de los costes correspondientes a la Fase I-A, finalizada en diciembre de 2021, ha



- Kanpo ingeniariak egindako zerbitzuak 265.000 euro izan dira, eta alderdien artean banatu dira: BBUPk % 20,25 ordaindu du (53.663,52 euro) eta Petronorrek % 79,75 (211.336,52 euro).
- Repsoleko Ingeniaritza Zuzendaritzak egindako zerbitzuen kostua 224.000 eurokoa izan da, eta honela banatu da: 32.238 euro BBUPk eta 191.762 euro Petronorrek.

I.B fasea

(i) Irismena

- Poliduktoko C tarte komunaren eraikuntza-proiektua idaztea, BBUPren eta Petronorren hodi guztiak barne hartuz.
- Petronorrentzat A eta D tartearen eraikuntza-proiektua idaztea.

(ii) Zehaztasunak

- BBUPk bere hodiari eta dagozkion dokumentuak eta horiei lotutako eranskinak emango ditu, horiek garatzea "eraikuntza-proiektuarena" izan beharko da.
- Hodi bakoitzaren eranskinetan alderdi bakoitzak dagokiona sartuko du, eta komunak diren kasuetan edo

quedado repartida de acuerdo con los siguientes criterios:

- Los servicios ejecutados por la ingeniería externa, que han ascendido a 265.000 EUR, han quedado repartidos entre las partes a razón de 20,25% por el CABB (53.663,52 EUR) y 79,75% por Petronor (211.336,52 EUR).
- Los servicios ejecutados por la Dirección de Ingeniería de Repsol, cuyo importe ha ascendido a 224.000 EUR, se han repartido entre las partes a razón de 32.238 EUR por CABB y 191.762 EUR por Petronor.

Fase I-B

(i) Alcance

- Redacción del proyecto constructivo del Tramo C común del poliducto, incluyendo la totalidad de conducciones del CABB y Petronor.
- Redacción del proyecto constructivo de los tramos A y D para Petronor.

(ii) Especificidades

- El CABB facilitará los documentos correspondientes a su conducción y los anejos asociados, cuyo desarrollo deberá ser de "proyecto constructivo".
- En los anejos propios de cada conducción, cada parte procederá a su inclusión y, en aquellos que fuesen comunes



interferentziak eragiten dituztenen kasuetan, eranskin berri bat idatziko da.

- Eraikuntza-proiektua kudeatu eta gainbegiratzeko ardura Repsoleko Ingeniaritza Zerbitzuari dagokio.

(iii) Kostuen banaketa

I-A Faseari eta I- B Faseari dagozkion kostuen banaketa ehuneko desberdinen arabera ezarri da. Fase hauetako bakoitzean alderdi bakoitzak beharizan desberdinak dauzka; horrenbestez, fase bakoitzean alderdi bakoitzari kostuen esleipen desberdina dagokio.

Fase horretan kostuen banaketa alderdi bakoitzaren inbertsioaren proportzioan egingo da, eta inbertsioaren kopuru erreala hainbat kostu batuz definituko da: materialen hornidura, alderdi bakoitzaren hodia eraiki eta muntatzea, eraikuntza-proiektuarekin bat etorritz.

2022ko maiatzean eskuragarri dauden aurrekontu eguneratuetan oinarrituta kalkulatu da BBUPri % 27 dagokiola eta % 73 Petronorri; banaketa hori eraikuntza-proiektuaren azken emaitzekin egokituko da.

I-B faserako aurreikusitako kostu eguneratuak eta horien arabera finkatutako banaketa-irizpideak honako hauek izango dira:

- Eraikuntza-proiektua idazteko kanpo ingeniartzaren zerbitzuak 516.146 eurotan kalkulatu dira, eta aldean artean

o supusieran interferencias, se procederá a la redacción de nuevo anejo.

- Corresponde y es responsable de la supervisión y gestión del proyecto constructivo la Dirección de Ingeniería de Repsol.

(iii) Reparto de Costes

El reparto de costes correspondientes a las Fase I-A y Fase I- B es establecido en base a porcentuales diferentes. Siendo las necesidades de las partes distintas en cada una de estas fases, es por lo que procede, una asignación de costes específica en cada una de ellas para cada una de las partes.

Para esta fase, el reparto de costes se realiza en proporción a la inversión de cada una de las partes, definiéndose el Importe real de la inversión como el sumatorio del coste de suministro de materiales, construcción y montaje de la conducción de cada parte, de acuerdo con el proyecto constructivo.

Se estima, en base a los presupuestos actualizados disponibles de mayo de 2022, un reparto del 27 % correspondiente al CABB, y un 73% correspondiente a Petronor, que se ajustará con las cifras finalmente resultantes en el proyecto constructivo.

Los costes estimados actualizados de la Fase I-B y los criterios de reparto fijados, de acuerdo con los mismos, serán los siguientes:

- Los servicios de la ingeniería externa para la redacción del proyecto constructivo, estimados



proporzionalki banatuko dira, obran alderdi bakoitzari dagokion inbertsioaren kopuru errealari dagokionez, eraikuntza-proiektuan islatutakoa: BBUPk % 27 (139.359,42 euro) eta Petronorrek % 73 (376.786,58 euro).

Kanpo ingeniartzak fakturatutako zerbitzuak azkenean ez badira adierazitakoak, kostu erreal modu proporzionalean banatuko da, inbertsioaren arabera, eraikuntza proiektuarekin bat etorritik.

- Aurreikusitako ehunekoak sei hilabeterik behin berrikusiko ditu Repsoleko Ingeniaritza Zuzendaritzak, eta beharrezko doikuntzak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari-PETRONORRI aurkeztuko zaizkie, onartzeko, benetan kontratatutako edo egindako inbertsio kopuruaren arabera; benetan egindakoa gailenduko da aurreikusitakoaren eta/edo kontratatutakoaren ginetik.
- Repsoleko Ingeniaritza Zuzendaritzaren zerbitzuak I-B eta II faseetarako, BBUPi fakturatuko zaizkie, honako hauek batuz lortuko den kopuru osoaren ehuneko gisa: obraren inbertsio erreal, eraikuntza-proiektua idazteko kanpo ingeniartza gastuak eta eraikina ikuskatzeko gastuak, BBUPren irismenari dagokionez. Jabetzaren ingeniartza-zerbitzuen kostua hala kalkulaturako kopuruaren % 4 izatea kuantifikatu da. Ehunekoa finkoa da eta ezin da berrikusi.

en 516.146 EUR, serán repartidos entre las partes proporcionalmente al importe real de la inversión correspondiente a la obra de cada parte reflejada en el proyecto constructivo, estimándose: 27% para el CABB (139.359,42 euros) y 73% para Petronor (376.786,58 euros).

En el supuesto de que los servicios facturados por la ingeniería externa finalmente difieran de los indicados, el coste real será repartido proporcionalmente en función de la inversión, de acuerdo con el proyecto constructivo.

- Los porcentajes estimados serán revisados semestralmente por la Dirección de Ingeniería de Repsol, sometiéndose a la aprobación del Consorcio CABB-PETRONOR los ajustes necesarios, en función de los importes de inversión realmente contratados o ejecutados, prevaleciendo lo realmente ejecutado sobre lo estimado y/o contratado.
- Los servicios de la Dirección de Ingeniería de Repsol, para las fases Fase I-B y Fase II serán facturados al CABB como porcentaje sobre el total del importe resultante de la suma de: la inversión real de obra, los gastos de ingeniería externa de redacción del proyecto constructivo y gastos de supervisión de la construcción, correspondientes al alcance del CABB. Se cuantifica que el coste de servicios de ingeniería de la Propiedad es un 4% del importe así calculado. Este porcentaje es fijo y no revisable.

- Fase honetan, beharrezkotzat jotzen da azterlan tekniko osagarriak egitea, egitura-proiektua idazteko. Proiektuaren aurrekontua 155.000 eurokoa da. Kostu hori portzentaje desberdinetan banatuko da, eta alderdi bakoitzak bere gain hartuko du bere beharrak betetzeko egindako lanei dagokiena. Hasierako esleipena 22.950 eurokoa izango da BBUPrentzako, eta 132.050 eurokoa Petronorrentzako, eta azken aurrekontuaren eta portzentaje-banaketaren arabera egokituko da.
- Era berean, kanpoko ingeniariak eraikuntza-proiektua idazteko lanetan, batez ere, gerta daitezkeen desbideratze ekonomikoari aurre egin ahal izateko, antzeko esperientziak erreferentziatzat hartuta, beharrezkotzat jotzen da 58.000 euroko kontingentzia-zenbatekoa gaitzea, aldean artean banatuta: 12.346,15 euro BBUPk eta 45.653,85 euro Petronorrek. Azken zifrak zehazteko, kontuan hartuko dira justifikatutako eta onartutako azken desbideratzeak eta kasuan kasuko kontzeptuetako partaidetza-ehunekoa.
- Se considera necesaria, en esta fase, la realización de estudios técnicos complementarios, para la redacción del proyecto constructivo, cuyo presupuesto estimado es de 155.000 EUR. El reparto de este coste se realizará en porcentajes diferentes, asumiendo, cada una de las partes, el correspondiente a los trabajos realizados para cubrir sus necesidades. Se considera una asignación inicial de 22.950 EUR para el CABB, y de 132.050 EUR para Petronor, que se ajustará con el presupuesto y reparto porcentual finalmente resultante.
- Asimismo, para poder hacer frente a las desviaciones económicas que se puedan producir, principalmente, en los trabajos de redacción del proyecto constructivo por parte de la Ingeniería externa, tomando como referencia experiencias previas similares, se considera necesario habilitar un importe de contingencias de 58.000 EUR, que quedan repartidos entre las partes a razón de 12.346,15 EUR para el CABB y 45.653,85 EUR para Petronor. Las cifras finales serán las que resulten de las desviaciones finales justificadas y aprobadas y de los porcentajes de participación en los conceptos a los que correspondan.

II. Fasea- Eraikuntza

(i) Irismena

Fase honetan hodiak egiteko, instalatzeko eta zerbitzuan jartzeko beharrezko materialak erostea ere barne hartuta dago. Hain zuzen

Fase II-Construcción

(i) Alcance

Se incluye en esta fase la compra de los materiales necesarios para la ejecución de las conducciones, su



ere, alderdi bakoitzarentzat lanek honako hau hartuko dute barne:

- Petronor hodiak: Hodiak homitu eta muntatzea tarte komunean (C TARTEA) eta tarte propioetan (A+D: findegia eta portua) eta zerbitzuan jartzea.
- BBUP hodiak: BBUPren tarte komuneko hodiak hornitzea eta muntatzea (C TARTEA). BBUPk bere kabuz jarriko du zerbitzuan, ondorengo fase batean.
- BBUPren hodia HUAtik elkartze puntura arte (B TARTEA): Partzuergoak irismen hori kontratatu, gainbegiratu eta zerbitzuan jarriko du; ez dago hitzarmenean jasota.

Bidenabar, fase honetan ingeniartzako kanpo zerbitzuek honako lan hauek egin ahalko dituzte:

- I-B fasean egin gabeko zenbait azterketa edo lanak egitean beharrezkotzat jotakoak.
- Eraikuntzaren kanpo gainbegiraketa, zuzendaritza fakultatiboa eta obrako segurtasun eta osasunaren koordinazioa barne.

(ii) Kostuen banaketa

instalación y puesta en servicio. En concreto, para cada parte, estos trabajos incluirán:

- Conducciones Petronor: Suministro y montaje de conducciones en el tramo común (TRAMO C) y en los tramos propios (A+D: refinería y puerto) y su puesta en servicio.
- Conducciones CABB: Suministro y montaje de conducción del CABB del tramo común (TRAMO C). El CABB realizará la puesta en servicio por su cuenta en una fase posterior.
- Conducción CABB desde EDAR hasta punto de confluencia (TRAMO B): El CABB procederá a la contratación, supervisión y puesta en servicio de este alcance, no incluido en el presente Convenio.

Asimismo, podrán llevarse a cabo, en esta fase, trabajos por parte de Servicios externos de Ingeniería correspondientes a:

- Estudios varios no realizados en Fase I-B o cuya necesidad se detecte durante la ejecución de los trabajos.
- Supervisión externa de construcción, que incluirá Dirección Facultativa y Coordinación de Seguridad y Salud en obra.

(ii) Reparto de Costes



Fase honetan aurreikusitako kostu eguneratuak irizpide hauen arabera banatuko dira:

- Hodia hornitzea: Erosketa eskaerak modu independentean aipatuko ditu kopuruak, soberakina barne (neurketa gehigarria, kamuste, ataltze eta abarretarako neurketa nominalaz gain eskatuz gero), BBUPren lerroetarako eta PETRONORREN poliduktorako eskuratutako materialei dagokienez. Alderdi bakoitzak eskaerako kostu erreala hartuko du bere gain, irismen bakoitzari dagokion kopuruena.

- BBUPrako erositako PE hodiaren soberakina BBUPri emango zaio eraikuntza-lanak bukatu ondoren.

- Hodia muntatzea: Hodia instalatzeko kontratuan modu independentean adieraziko dira BBUPren lerroetarako eta PETRONORREN poliduktorako instalatu beharreko hodi kopuruak. Alderdi bakoitzak instalazioaren kostu erreala hartuko du bere gain, irismen bakoitzari dagokion neurketetan eskainitako unitate prezioak aplikatuz.

- Hodiak muntatzeko zuloak egiteari lotutako lanen zenbatekoa, esaterako zuinketa, ziriztatzea, traza irekitzea eta bide eskubidea, hondeaketa, lan zibilak, entibazioa, betelana, lehengoratzea, hondakinen kudeaketa, gurutzaketa bereziak eta abar, alderdi bakoitzak okupatutako zanga sekzioarekiko modu proportzionalean banatuko dira. Eskura ditugun datuekin kalkulatu da, partekatutako trazaren sekzio tipoari dagokionez, BBUPri % 31 dagokiola, eta Petronorri % 69.

El reparto de los costes actualizados previstos en esta fase se realizará siguiendo los siguientes criterios:

- Suministro de tubería: El pedido de compra indicará, de forma independiente, las cantidades, incluyendo el surplus (medición adicional requerida sobre la medición nominal para despieces, despuntes, etc...), de material adquirido para las líneas de CABB y el poliducto de PETRONOR. Cada parte asumirá el coste real de pedido de las cantidades correspondientes a cada alcance.

- El excedente de tubería de PE comprado para CABB se entregará a CABB al finalizar los trabajos de construcción.

- Montaje de tubería: El contrato de instalación de tubería indicará, de forma independiente, las cantidades de tubería a instalar para la línea del CABB y para el poliducto de PETRONOR. Cada parte asumirá el coste real de instalación, aplicando los precios unitarios ofertados a las mediciones correspondientes a cada alcance.

- El importe de los trabajos asociados a la ejecución de las zanjas para el montaje de las tuberías, tales como replanteo, estaquillados, apertura de traza y derecho de vía, excavación, trabajos civiles, entibación, relleno, restitución, gestión de residuos de excavación, cruces especiales, etc., se repartirá proporcionalmente a la sección de zanja ocupada por cada parte. Con los datos disponibles estima,

Banaketa-koefizientea poliduktoaren neurketa errealeatik abiatuta berrikusiko da.

- Obrak egingo dituen enpresa adjudikaziodunarekin lortutako eraikuntza-kontratuari lotutako kostu komunak alderdien artean banatuko dira adjudikatzeko obraren inbertsio errealearekiko modu proportzionalen.
- Poliduktoaren obrak egiteko kalkulaturako kostu eguneratua, I-A fasea amaitu ondoren egin den gutxi gorabeherako aurrekontuaren arabera, eta erreferentzia gisa hartuko dena kostuen banaketa definitu arte, proiektuaren eta obraren fasean datu errealak eman arte, 12.542.956,25 eurokoa izango da; hortik Petronorri 9.156.358,06 euroko kopurua dagokio (% 73) eta BBUPri 3.386.598,19 euro (% 27).
- Egindako hodi berriei lotutako kostuak, erakundeei edo administrazioei ordaindu beharreko lizentziei, baimenei edo tasei dagokienez, modu independentean kudeatu eta ordainduko ditu alderdi bakoitzak. Zehazki, Muskiz eta Zierbenako udalekin egin beharreko izapideak Petronorrek kudeatuko ditu, bere jabetzako hodian obra-lizentzia lortu eta horiek ordaintzeari dagokionez. BBUPren obrak obra-lizentzia ordaindu beharretik salbuetsita daude, baina, obra modu bateratuan izapidetzean udalek obra-lizentziaren kalkulua egitean obra osoa hartzen bada kontuan, BBUPren zatia

sobre una sección tipo de la traza compartida, un coeficiente de 31% correspondiente a CABB y 69% a PETRONOR.

El coeficiente de reparto se revisará a partir de las mediciones reales del poliducto.

- Los costes comunes asociados al contrato de construcción con la empresa adjudicataria que ejecuta las obras, serán repartidos entre las partes proporcionalmente a la inversión real de obra adjudicada.
- El coste actualizado estimado para la ejecución de las obras del poliducto, tras la finalización de la Fase I-A, en la que se ha elaborado un presupuesto aproximado, con los datos recabados, y que servirá como punto de referencia para la definición del reparto de costes hasta la disposición de datos reales en fase de proyecto y de obra, es de 12.542.956,25 EUR, de los que corresponderían a Petronor 9.156.358,06 EUR (73%) y al CABB 3.386.598,19 EUR (27%).
- Los costes asociados a las nuevas conducciones ejecutadas, correspondientes a licencias, permisos o tasas a abonar a Organismos o Administraciones, serán gestionados y abonados, de manera independiente, por cada una de las partes. En particular, Petronor gestionará con los Ayuntamientos de Muskiz y Zierbena la licencia de obras correspondiente a las conducciones de su propiedad y el abono de la misma. Las obras del CABB están exentas de pago de

baztertu gabe, orduan obrako lizentzia-kostuak alderdien artean banatuko dira zerga oinarri aplikagarriarekiko modu proportzionalean.

- Hodiak muntatzeko obrak bertatik bertara kontrolatu eta gainbegiratzeko kanpo ingeniariaren kostuak alderdien artean banatuko dira, esleitutako obraren inbertsio errealekiko modu proportzionalean. Lan horiek egiteko kalkulatu den kostua 700.000 eurokoa da; kopuru horretatik BBUPri 189.000 euro dagozkio (% 27) eta Petronorri 511.000 euro (% 73).

Kostu guztiek aldeztatik BBUPren eta Petronorren onarpena beharko dute; bestela ez dituzte haien gain hartuko”.

HIRUGARRENA.- Petronorrek eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak 2021eko maiatzaren 6an sinatutako hitzarmenaren seigarren klausula (“Obrak eraiki eta zuzentzeko finantzaketa”) aldatzea.

2021eko maiatzaren 6an sinatutako seigarren klausula aldatzea, honela idatzita geratu dadin:

“SEIGARRENA - OBRAK ERAIKI ETA ZUZENTZEKO FINANTZAKETA.

licencia de obras, pero, en el caso de que, al tramitar la obra conjunta, el cálculo de la licencia de obras por parte de los ayuntamientos se considere sobre el total de la obra no excluyendo la parte del CABB, los costes de la licencia de obra serán repartidos entre las partes proporcionalmente a la base imponible aplicable.

- Los costes de Ingeniería externa para la supervisión y control a pie de obra del montaje de las conducciones se repartirán entre las partes proporcionalmente a la inversión real de obra adjudicada. El coste actualizado que se estima para estos trabajos es de 700.000 EUR, de los cuales corresponderán al CABB 189.000 (27%) EUR y a Petronor 511.000 (73%) EUR.

La totalidad de los costes deberán contar con la aprobación previa de CABB y Petronor, en caso contrario no serán asumidos.”

TERCERA.- Modificación de la cláusula sexta “Financiación de la Dirección y Construcción de las obras”, del convenio suscrito entre Petronor y el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia en fecha 6 de mayo de 2021.

Se modifica la cláusula sexta del convenio suscrito con fecha 6 de mayo de 2021, que queda redactada como sigue:

“SEXTA. - FINANCIACIÓN DE LA DIRECCIÓN Y CONSTRUCCIÓN DE LAS OBRAS.

BBUPek eta Petronorrek obrak eraiki eta proiektuak idazteko finantzaketa-konpromisoa modu bateratuan hartzen dute, aurreko ataletan ezarritako irizpideekin bat etorriz kasuan kasuko fase eta kontzeptuetan.

El CABB y Petronor asumen el compromiso de la financiación de la redacción de los proyectos y construcción de las obras de forma conjunta, de acuerdo con los criterios fijados en los apartados anteriores, para las distintas fases y conceptos.

Fase bakoitzerako aurreikusitako kostu eguneratuak eta ezarritako banaketa kontuan hartuz, honako inbertsio-taula hau egin da:

Considerando los costes estimados actualizados, para cada una de las fases, y el reparto establecido, resulta el siguiente cuadro de inversión:

	KOSTUA GUZTIRA COSTE TOTAL	PETRONORRI DAGOKION KOSTUA COSTE ASOCIADO PETRONOR	BBUPi DAGOKION KOSTUA COSTE ASOCIADO CABB
IA FASEA			
FASE IA			
Proiektuak idazteko kanpo ingeniarietza zerbitzuak <i>Servicios ingeniería externa redacción Proyectos</i>	265.000 €	211.336,48 €	53.663,52 €
Repsoleko Ingeniaritza Zuzendaritzako zerbitzua <i>Servicios Dirección de Ingeniería Repsol</i>	224.000 €	191.762,00 €	32.238,00 €
IA FASEA GUZTIRA TOTAL FASE IA	489.000,00 €	403.098,48 €	85.901,52 €
F IB FASEA			
ASE IB			
Proiektuak idazteko kanpo ingeniarietza zerbitzuak <i>Servicios ingeniería externa redacción Proyecto</i>	516.148,00 €	376.786,58 €	139.359,42 €
Repsoleko Ingeniaritza Zuzendaritzako zerbitzua <i>Servicios Dirección de Ingeniería Repsol</i>	355.470,00 €	293.470,00 €	62.000,00 €
Azterketa Téknikoak <i>Estudios Técnicos</i>	155.000,00	132.050,00	22.950,00
Kontingentziak <i>Contingencias</i>	58.000,00	45.653,85	12.346,15
IB FASEA GUZTIRA TOTAL FASE IB	1.084.616,00 €	847.960,43 €	236.655,57€

II FASEA			
FASE II			
Poliduktoa eraikitzea <i>Construcción poliducto</i>	12.542.956,25 €	9.156.358,06 €	3.386.598,19 €
Obra gainbegiratzeko kanpo ingeniartzako zerbitzua <i>Servicio de Ingeniería externa Supervisión de Obra</i>	700.000,00 €	511.000,00 €	189.000,00 €
Repsoloko Ingeniaritza Zuzendaritzako zerbitzua <i>Servicios Dirección de Ingeniería Repsol</i>	511.530,00 €	424.612,23 €	86.917,77 €
II FASEA GUZTIRA TOTAL FASE II	13.754.486,25 €	10.091.970,29 €	3.662.515,96 €
INBERTSIOA GUZTIRA TOTAL INVERSIÓN	15.328.102,25 €	11.343.029,20 €	3.985.073,05 €

Islatutako zifrak, nolahi ere, estimazioak dira, eta egokitu egingo dira lanek aurrera egiten duten neurrian, azkenean eratorritako balorazioekin.

Hitzarmen honetan jasotako kopuru ekonomikoak, nolahi ere, balorazioak dira (BEZik gabe).

Programazio estimatu eguneratuarekin bat etorritik, hitzarmen honetan jasotako jarduketak 2021 eta 2024 artean garatuko dira, epe partzial hauekin:


- IA fasea: Trazadura proiektua idazteko lana 2021eko martxoan hasiko da eta 2021eko abendura arte iraungo du. Eranskin hau sinatzeko unean, fase hau amaituta dago.
- IB fasea: Eraikuntza-proiektua idazteko lana; 2022ko urtarilean hasiko da eta 2022ko abendura arte iraungo du.

Las cifras reflejadas son, en todos los casos, estimaciones que se irán ajustando, a medida que se avance en los trabajos, con las valoraciones que finalmente resulten.

Los importes económicos reflejados en el presente convenio corresponden, en todos los casos, a valoraciones (IVA excluido).

De acuerdo con la programación estimada actualizada, las actuaciones incluidas en el presente convenio se desarrollarán entre 2021 y 2024, con los siguientes plazos parciales:

- Fase IA: De redacción del proyecto de trazado, comenzará en marzo de 2021 y finalizará en diciembre de 2021. En el momento de firma de la presente Adenda esta fase ha concluido.
- Fase IB: De redacción del proyecto constructivo, comenzará en enero de 2022 y se prolongará hasta diciembre de 2022.



- II. fasea: Poliduktoa eraikitzea, 2023ko urtariletik 2024ko ekainera bitartean.

Aurreikusitako epe eta kostuen ondorioz, hauxe da urteko kuoten banaketa eguneratua:

URTEKO KUOTA ANUALIDAD	GUZTIRA TOTAL	PETRONOR	CABB
2021	489.000 €	403.098,48 €	85.901,52 €
2022	1.084.616,00 €	847.960,43 €	236.655,57€
2023	9.192.000 €	6.732.000 €	2.460.000 €
2024	4.562.486,25 €	3.359.970,29 €	1.202.515,96 €
INBERTSIOA GUZTIRA TOTAL INVERSIÓN	15.328.102,25 €	11.343.029,20 €	3.985.073,05 €

Hori guztia ikusita, hitzarmenean parte hartzen duten alderdiek aurrekontu-gordailu nahikoak egin beharko dituzte norik bere gain hartutako betebeharrak ekonomikoki aurre egiteko.

Proiektua idazteko lanak egitean edo obren kontratua garatzean sor daitezkeen gorabeherak aldatzeko ekarri gero edo kontratua garatzean egin beharreko jarduketak aldatzea ekarri gero, hitzarmen hau dela bide sortuko den Jarraipen Batzordeari alde aurretik jakinarazi egin beharko zaio eta BBUPen eta Petronorren aldeko irizpena beharko da.

LAUGARRENA.- Petronorrek eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak 2021eko maiatzaren 6an sinatutako zarpigarren klausula ("Ekarpenak ordaintzea") aldatzea.

- Fase II: Comprenderá la construcción del poliducto entre enero de 2023 y junio de 2024.

Como resultado de los plazos previstos y costes estimados, la distribución plurianual actualizada de anualidades asociada es la siguiente:

A la vista de lo anterior cada una de las partes que intervienen en el Convenio se obligan a efectuar las consignaciones presupuestarias suficientes para hacer frente a las obligaciones económicas que contraen.

Las incidencias que se pudieran producir durante el desarrollo de los trabajos de redacción del proyecto o del contrato de obras y supusieran una modificación del mismo o las actuaciones a realizar durante la ejecución del contrato, requerirán la comunicación previa a la Comisión de Seguimiento que se constituye en virtud de este Convenio y dictamen favorable del CABB y Petronor."

CUARTA.- Modificación de la cláusula séptima "Abono de las aportaciones" del convenio suscrito entre Petronor y el Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia en fecha 6 de mayo de 2021.



2021eko maiatzaren 6an sinatutako zazpigarren klausula aldatzea, honela idatzita geratu dadin:

**"ZAZPIGARRENA- EKARPENAK
ORDAINTZEA.**

BBUPri dagozkion ekarpenak, hitzarmen honetan bildutakoak, Petronorrek BBUPri hileko fakturak emanez ordainduko dira.

Fase bakoitzean ordaindu beharreko ekarpenen kopuru estimatua honako hau izango da:

• **IA fasea:**

BBUPk bere gain hartu beharreko kostu osoa fase honetan 85.901,52 eurokoa da, eta zortzi hilean garatzea aurreikusi da; horrenbestez, hileko 10.800 euroko ordainketa ezartzen da, eta zortzigarren hilabetean erregularizatuko da, azkenean lortutako balorazioekin.

2021eko abenduan IA fasea amaitu zen eta aldean artean erregularizatu zen amaierako zenbatekoa.

• **IB fasea:**

BBUPk bere gain hartu beharreko kostu osoa fase honetan 236.655,57 eurokoa da, eta hamabi hilabeteetan garatzea aurreikusi da; horrenbestez, hileko 19.800 euroko ordainketa ezartzen da, eta hamabigarren hilabetean erregularizatuko da, azkenean lortutako balorazioekin.

Fase honetarako esleitutako hileko zenbatekoa, 2021eko maiatzean sinatutako

Se modifica la cláusula séptima del convenio suscrito en fecha 6 de mayo de 2021, que queda redactada como sigue:

**"SÉPTIMA.- ABONO DE LAS
APORTACIONES.**

El pago de las aportaciones correspondientes al CABB, recogidas en este convenio, se realizará mediante la emisión de facturas mensuales emitidas por Petronor al CABB.

El importe estimado de las aportaciones a realizar, en cada una de las fases, será:

• **Fase IA:**

El coste total estimado a asumir por el CABB en esta fase asciende a 85.901,52 EUR, y su desarrollo está previsto en 8 meses, por lo que se establece un abono mensual de 10.800 EUR, que se regularizará en el mes 8 con las valoraciones finalmente resultantes.

En diciembre de 2021 se finalizó la Fase IA y se regularizó entre las partes el importe final resultante.

• **Fase IB:**

El coste total estimado a asumir por el CABB en esta fase asciende a 236.655,57 EUR, y su desarrollo está previsto en 12 meses, por lo que se establece un abono mensual de 19.800 EUR, que se regularizará en el mes 12 con las valoraciones finalmente resultantes.

Dado que el importe mensual asignado para esta fase, en el



hitzarmenean, 8.400 eurokoa zenez, hitzarmenaren aldaketa hau sinatu ondoren egiten den lehen ziurtagirian dagoen desfase ekonomikoa erregularizatuko da.

- **II. fasea:**

BBUPk bere gain hartu beharreko kostu osoa fase honetan 3.662.515,96 eurokoa da, eta hemezortzi hilabetetan garatzea aurreikusi da; horrenbestez, hileko 205.000 euroko ordainketa ezartzen da, eta hemezortzigarren hilabetean erregularizatuko da, azkenean lortutako balorazioekin.

BOSGARENA.- Aldaketaren irismena.

Eranskin honetan berariaz adierazi ez den guztirako, 2021eko maiatzaren 6an aldeek sinatutako hitzarmenak indarrean jarraituko du eta aplikagarria izango da.

SEIGARRENA.- Ondorioak.

Eranskin honek ondorioak izango ditu bi alderdiek sinatzen duten egunetik aurrera.

convenio firmado en mayo de 2021, era de 8.400 EUR, procederá la regularización del desfase económico existente en la primera certificación que se curse tras la firma de la presente modificación del convenio.

- **Fase II:**

El coste total estimado a asumir por el CABB en esta fase asciende a 3.662.515,96 EUR, y su desarrollo está previsto en 18 meses, por lo que se establece un abono mensual de 205.000 EUR, que se regularizará en el mes 18 con las valoraciones finalmente resultantes."


QUINTA.- Alcance de la modificación.

En todo lo no previsto ni expresamente modificado en la presente Adenda, seguirá en vigor y será de aplicación el Convenio suscrito por las partes con fecha 6 de mayo de 2021.

SEXTA.- Eficacia.

La presente Adenda producirá efectos desde la fecha de firma por ambas partes.



<p>Azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutako bi alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.</p>		<p>Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.</p>
<p>Jose Gregorio Luque Gonzalez</p>  <p>Petróleos del Norte S.A. Kontseilari delegatua Consejero Delegado</p>		<p>Kepa Odriozola Azula</p>  <p>Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko Presidentea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea. Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia</p>



ANEJO Nº 1 – PLANO
1. ERANSKINA – PLANOA

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large, stylized 'S' or 'B' shape.



<p>  Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia </p>		<p>  Petronor </p>	<p> Ing. Juan A. Solaun Ing. Juan A. Solaun Ing. Juan A. Solaun Ing. Juan A. Solaun </p>	<p> 1:10.000 1:10.000 1:10.000 1:10.000 </p>	<p> 1:10.000 1:10.000 1:10.000 1:10.000 </p>	<p> 1:10.000 1:10.000 1:10.000 1:10.000 </p>	<p> 1:10.000 1:10.000 1:10.000 1:10.000 </p>	<p> 1:10.000 1:10.000 1:10.000 1:10.000 </p>	<p> 1:10.000 1:10.000 1:10.000 1:10.000 </p>	<p> 1:10.000 1:10.000 1:10.000 1:10.000 </p>	<p> 1:10.000 1:10.000 1:10.000 1:10.000 </p>	<p> 1:10.000 1:10.000 1:10.000 1:10.000 </p>
--	--	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---